

8. FUNTSEZKO BALIABIDEAK

Lehenengo momentutik, aplikazioa ondo funtzionatzea eta erraza izatea lortu behar dugu. Horretarako, Damianen laguntzarekin diseinu moderno eta eroso bat egingo dugu, non gauzak argi ikusi beharko diren.

Hori egin eta gero, eta gure enpresak ondo funtzionatzen ari dela ikusten dugunean, hobeto funtzionatzeko hainbat aldaketa eta berrikuntza egingo ditugu noizean behin. Hau da, gure helburu nagusia lortzeko, bezeroak mantentzea eta gehiago edukitzea, oso garrantzitsua da haiek guregatik onena jasotzea. Eta horretarako, ezinbestekoa da lan egin ahala, haien iritziak eta hobekuntzak entzutea. Hori kontuan izateko, hil amaieran, gure app-ean inkesta txikitxo bat jarriko dugu haiek gure lanari buruz iritziak emateko.

Horrez gain, esperientzia hartzen joan heinean, gure trebetasunak hobetzen eta lanari ohitzen joango gara. Hala eta guztiz ere, ordenagailuak, telefonoak eta webgunearen diseinua perfektionatzen joango gara, hasieratik egindako akatsak zuzentzen eta gure proiektu berriari onena ateratzen.

